

ABANTO ZIERBENA UDALERRIKO KIROL ELKARTEEI 2016KO URTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.

SARRERA

Diru-laguntza hau Abanto Zierbenan helbide soziala edo toki iraunkorra duten elkarteei zuzenduta dago, nagusiki langile propioak ez dituzten eta gehienbat boluntarioen lanari esker funtzionatzen duten erakunde txikiak baitira. Beste alde batetik, udalak jakin du laguntza publikoen xedea, hau da, irabazi asmorik gabeko erakundeen funtzionamendutik eratorritako gastuen kofinantzaketa, erabat ezinbestekoa dela erakunde eskatzaileak beraiek bizirauteko. Azkenik, kontuan hartu behar da aipatu taldeek gauzatzen duten jarduera, horrek ahalbidetu egiten baitu udalerriko elkarte egiturak bizirik irautea, eta hori da edozein aurrerapen gizarteren oinarrietako bat.

ESPARRU ARAUEMAILEA

Deialdi hau diru-laguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzan (2006ko maiatzaren 11ko 89. zenbakiko BAO), Ordenantzaren aldaketa (2015eko marxoaren 2ko 41. Zenbakiko BAO) zein azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorrak eta uztailaren 21ean onetsitako 887/2006 zenbakiko Errege Dekretuaren bidez onetsitako araudian xedatutakoarekin bat etorritik agindu dira.

DIRU-LAGUNTZA LERROAK

Deialdi honen baitan, honako diru-laguntza ildo hauek ezarri dira:

1. lerroa: KIROLA SUSTATZEKO ETA BULTZATZEKO JARDUERAK.

FINANTZAZIOA

Deialdi honen xedea betetzeko, diru-laguntza linearen finantzaketa honela egingo da:

1. lerroa: gehienez ere 19.000,00 €-ko aurrekontu kredituaren kargura, 02 2 481 01 341 00 aurrekontu partidaren kargura.

Diru-laguntza horiekin batera, bestelako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste erakunde publiko edo pribatuetatik datozen baliabideak ere jaso ahal izango dira, diru-laguntzei buruzko udal ordenantzan ezarritako baldintzei jarraikiz.

Hori dela eta, 2004ko azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrarekin zein aipatu legearen araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin eta Udal Ordenantzarekin bat etorritik, Abanto Zierbena udalerriko kultur elkarteei diru-laguntzak emateko deialdi hau argitaratu da.

ARAUDIA

1.- XEDEA

Deialdi honen xede nagusia da Abanto Zierbena udalerriko kirol elkarte eta erakundeei diru-laguntzak ematea euren ohiko jardueratik eratorritako gastuetarako, besteak beste, lokalak alokatzeko, elektrizitaterako, telefonorako eta bestelako ohiko gastuetarako.

2.- ERAKUNDE HARTZAILEAK

Hemen deitutako diru-laguntzen subjektua edozein pertsona juridiko izan daiteke, betiere Abanto Zierbenan egoitza soziala edo toki iraunkorra izanik, elkarte izaera badu eta diru-laguntza linea ezberdinetan jasotako kirol ekintzaren bat gauzatzea xede badu, deialdi honetan jasotzen diren irizpideei jarraikiz, eta Abanto Zierbena udalerraren interesekoa bada. Horrela, Abanto Zierbenako Udalak gauzatutako kultur jarduerak areagotu, osatu edo ordezkatu ditu.

Era berean, ohiko diru-laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun elkarteak edo bestelako batasun ekonomiko edo ondare banatuak, nortasun juridikoa izan gabe ere, baldin eta helbide soziala Abanto Zierbenan badute eta diru-laguntza emateko arrazoia ematen duten proiektu edo jarduerak egiteko gai badira.

Eskatzailea Elkarte edo Fundazio izaera duen erakundea bada, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan zein Abanto Zierbenako Elkartearen Udal Erregistroan erregistratuta egon beharko da.

3.- DIRU-LAGUNTZA MOTAK

Izaera arrunta edo urtebeteko izaera duten diru-laguntzak, 2016. urterako erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamenduko programa osatzen duten jarduerak babesteko eta sustatzeko.

4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak Abanto Zierbenako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan zein Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan aurkeztu beharko dira.

Informazioa eta eskaera ereduak udalaren web gunean (www.abanto-zierbena.org) ere egongo dira eskura. Eskaerak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2016ko apirilaren 18ra artekoa izango da, biak barne.

Eskaerak derrigor bete beharko dira deialdi honen I. Eranskin gisa agertzen den eskabide normalizatuan.

Eskaera instantziarekin batera, honako hauek ere aurkeztu beharko dira, behar bezala osatuta: II., III. eta IV. eranskin gisa agertzen diren inprimakiak eta 5. atalean adierazitako gainerako dokumentazioa.

Eskabideak adierazitako epeetatik kanpo aurkeztekotan, eskabideok atzera bota ahal izango dira, eta, ondorioz, artxibatu egingo dira beste izapiderik egin gabe.

5.- ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- NANaren fotokopia, eskaera aurkeztu izanaren frogagiria edo erakundearen IFKren fotokopia.
- 2016. urtean gauzatuko diren jardueren proiektu xehatua (II. Eranskina).
- 2015eko diru-sarrera eta gastuen balantzea, bai eta 2016ko aurrekontua ere, diru-laguntza eskatzen den xedearen jarduerari edo proiektuari dagokienez.(III. Eranskin Eredua).2015eko diru-sarrera eta gastuen balantzea aipatu urteko diru-laguntza justifikatzeko entregatu bada, ez da beharrezkoa izango berau aurkeztea.
- Irabazi asmorik gabeko elkarteak edo fundazioa izatekotan, erregistroaren inskripzio ziurtagiria, baita Estatutuen kopia ere.
- Gizarte Segurantzaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasunaren ziurtagiriak. Aipatu ziurtagiriek deialdi hau argitaratu ondorengoak izan beharko dute,
- Aurreko urtean udalak emandako antzeko diru-laguntza jaso duten eskatzaile, pertsona fisiko edo juridikoek ez dute berriro aurkeztu behar izango NAN edo IFK, ezta Estatutuen kopia edo elkarteak erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria ere.

Udalak, kasu zehatz bakoitzari jaramon egiteko, beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.Erakunde edo pertsona fisiko horrek, hala badagokio, berau aurkezteko betebeharra izango du, bere eskaera izapidetzea nahi badu.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie zerrendatutako dokumentazioaren baitan aurkeztu dituzten datuak urteko diru-laguntza emateko prozeduran baino ez direla erabiliko. Oinarri hauetan arautzen da, hain zuzen ere, diru-laguntza horien deialdia.

6.- ESKARIAK BAZTERTZEA

Ez dira kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerak, ezta Abanto Zierbenako Udalaren azalpen memoria eta/edo justifikazioa aurkezteko duen erakundeak eginiko adierazpenak ere.

7.- OSORIK EZ DAUDEN EDO AKATSEN BAT DUTEN ESKARIAK.

Aurkeztutako eskaera edo erantsitako dokumentazioa osatu gabe badaude edo konpondu daitekeen bestelako akatsen bat badute, eskatzaileari eskatuko zaio akats horiek zuzen ditzan, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, eskaera jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Adierazi egingo zaie, hala egin ezean, bere eskaerari uko diola ulertuko dela.

8.- ALDI BEREKO LEHIA

Orain deitutako diru-laguntzak aldibereko lehia araubidearen bidez emango dira, aurkeztutako eskabideak ebaluatuta, eta ondoren horien artean lehentasuna ezarriz, araudi honetan eta dagokion deialdian jasotako balorazio irizpideekin bat etorritz.

Edozein kasutan, diru-laguntzen emakida ebazpena egiterakoan eskura dagoen aurrekontuaren eta kreditu egokiaren eta nahikoaren arabera baldintzatuta egongo da.

9.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Eskabideak balioestean, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan diru-laguntza linea guztietarako:

A) Elkarteari dagozkion irizpideak

- 1. Udal programetan parte hartzea: 10 punturaino.*
- 2. Auzo ezberdinetan lana zabaltzea eta bertan esku hartzea (Las Carreras, Sanfuentes, Gallarta). 5 punturaino.*
- 3. Zenbar urte daraman sortu zenetik eta udalerriarekin duen lotura: 5 punturaino
Ohiko diru-laguntzak jasotzeko, elkarteek urte bete baino gehiagoko aintzinasuna izan beharko dute.*
- 4. Bazkideen zenbatekoa : 5 punturaino*
- 5.- Gizonen eta emakumeek elkarteetan duten ordezkaritza orekatua: 5 punturaino
- Elkarteen osaketan ordezkaritza orekatua
Batzordearen osaketan ordezkaritza orekatua*

B) Aurkeztutako proiektuei buruzko irizpideak

- 1. Euskara erabiltzea: 20 punturaino.*
- 2. Programaren iraupena: 10 punturaino.*
- 3. Proiektuaren kalitatea: 25 punturaino.*
 - Helburuak*
 - Jarduerak*
 - Lengoaiaren eta irudiaren erabilera ez sexista*
 - Baliabideak*
 - Aurrekontua*

— *Hartzaileak (emakumeak, hirugarren adinekoak, minusbaliatuak, adingabeak)*

10.- IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Euskara, Kirola eta Jai Arloa izango da oinarri espezifiko hauetan jasotako diru-laguntzak emateko organo izapidegilea.

Alkatetza izango da ebazteko eskumena izango duen organoa, aurreko paragrafoan adierazitako organo izapidegileak proposatuta.

Diru-laguntza emateko proposamena berau emango duen organoak egingo du, hau da, presidentek, elkargoko organo batek, organo izapidegilearen bidez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritz.

Hona hemen kide anitzeko organoaren osaera:

TITULARRAK

MAHAIBURUA:

Gizarte arloetako koordinatzaile zinegotzia

KIDEAK:

Euskara, Kultura eta Kirol Arloko zinegotzi delegatua
Juanma Cobo Guerrero

IDAZKARIA:

Kultura, kontratazio eta administrazioarekiko auzien administraria

Gehienez ere sei hilabeteko epea egongo da ebazpena emateko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, berriazko ebazpenik egingo ez balitz, diru-laguntza eskaera atzera bota dela ulertuko da, Herri Administrazioei eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 44.1 artikuluan xedatutako ondoretarako.

Ematen den ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea, eta horren aurka, bi hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Nolanahi ere den, hautazkoa da, aipatutako administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu baino lehen, hilabeteko epean berrezartze-helegitea aurkeztea ebazpena eman duen organoaren aurrean.

Deialdi honetan araututa dauden diru-laguntzen emakida, eta, hala badagokio, horiek onuradunei ordaintzea, baldintzatuta egongo da Lanestosako Udalak emandako mota bereko

laguntza edo diru-laguntzen arloan hasitako edozein itzulera edo zehapen prozedura, oraindik izapidean dagoena, amaitzearekin.

11.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Orain deitutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste batzuekin: helburu bererako erakunde publiko zein pribatuek emandakoekin; baina, ezin izango da, inola ere, gainfinantzaziorik egon, hau da, beste erakunde batzuekin batera emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du gainditu jardueraren kostu osoa.

Eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoari dagokionez, eskatutako zenbatekoa izango du oinarrian, eta lortutako puntuazioaren arabera portzentajea ezarriz zehaztuko da, taula honi jarraikiz:

Eskaerari emandako puntuak	Emandako diru-laguntzaren %
70 puntu edo gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 90
55 puntu edo gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 80
40 puntu edo gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 70

Eskaerek diru-laguntzarako gehienezko kreditu erabilgarria gainditzen badute, horrela erregularizatuko dira:

Eskura dagoen zenbateko osoa zatituko da eskatutako diru-laguntzen behin-behineko esleipenaren artean. Eraitza koefiziente zuzentzaile bat izango da, behin-behineko esleipenari ezarriko zaiona.

Diru-laguntzen lehiak gainfinantzazioa badakar, onuradunak Abanto Zierbenako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du; zehazki, erakunde horrek finantzatutako kopuru osoaren arabera zenbatekoa itzuli beharko du.

Edozein kasutan, diru-laguntzen emakida ebazpena egiterakoan eskura dagoen aurrekontuaren eta kreditu egokiaren eta nahikoaren arabera baldintzatuta egongo da.

Aukera dago diru-laguntzaren ordainketa onuradunak egin beharreko justifikazioa egin aurretik egiteko, diru-laguntza hori nahitaezkoa bada jarduera gauzatzeko finantzazio gisa.

12.- ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua gauzatu eta deialdi honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu, eta beste horrenbeste egin beharko du Diru-laguntzen emakida araupetzen duen udal-ordenantzak (zehazki, ordenantza horretako 15. artikulua) ezarritakoarekin.

Dena den, behin emakida-ebazpena emanda, onuradunak edukia aldatzea eskatu ahal izango du. Aldaketa hori baimendu ahal izango da, betiere hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira. Eskaera jarduera egiteko epea amaitu aurretik aurkeztu beharko da.

Zehazki, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio, diru-laguntza jasotzen badu, derrigor gehitu beharko dituela, promozio-elementuetan eta karteletan, diruz lagundutako jardueraren kariatara egiten diren testu edo dokumentuak. Horiek EAEko bi hizkuntza ofizialetan editatu beharko dira. Beste alde batetik, Abanto Zierbenako Udalaren babesletza aipatu beharko da, betiere kartelak jartzeari buruzko udal-araudia betez.

13.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Onuradunen betebeharretako bat izango da jasotako diru-laguntzaren xedea justifikatzea.

Aipatu justifikazioa egiteko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Jardueraren memoria xehatua, alderdi esanguratsuak eta lortutako emaitzak jasoko dituen.
- Jarduerak eragindako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea. Diru-sarreren zerrendan, edozein kontzepturengatik lorturikoak agertuko dira.
- Emandako diru-laguntza 60.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, jardueraren ondorioz sorturiko gastu guztien jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. Egiaztagiri horiek fakturak edo frogatzeko baliozkoak diren beste agiri baliokide batzuk izango dira, eta baliozkotasuna izango dute merkataritzako trafiko juridikoan, baita eraginkortasuna ere administrazioan. Pertsona onuradunak jatorrizko agiriak itzultzea nahi badu, horien kopia bat aurkeztu beharko du, konpultsatzeko. Administrazioak diligentsia zabalduko du jatorrizko fakturretara, emandako diru-laguntzaren lotura ager dadin.
- Diru-laguntza 60.000 eurotik beherakoa bada, jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua aurkeztu beharko da, honako hauek zehaztuta: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, emate-data eta ordaintze-data. Onuradunek gorde egin behar dituzte, gutxienez lau urtez, trafiko juridiko-merkantilean froga-balioa duten jatorrizko faktura eta agiriak, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, baina ordainagiriak ere. Administrazioak 60.000 eurotik beherako diru-laguntzei dagozkien faktura eta ordainagirien % 25 ikuska ditzake, laginketa-teknika bidez, diru-laguntza egoki aplikatu delako ebidentzia izateko. Horretarako, administrazioak hautaturiko onuradunei eskatu ahal izango die aipatu agiriak igortzeko.
- Diru-laguntza eman zaion jardueraren harira argitaraturiko edo editaturiko liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta antzekoen ale bana.

Justifikazio hori aurkezteko gehienezko epea 2017ko otsailaren 15ean amaituko da.

Onuradunak aurkeztu dituen jatorrizko agiriak behar dituzenean, horiek fotokopia batekin batera emango zaizkio; hori erkatu eta jatorrizko agiriak zigilatu eta onuradunari itzuliko zaizkio.

Abanto Zierbenako Udalak finantza-egoera egiaztatzeko nahi beste jarduera egingo ditu erakunde onuraduneari, barneko edo kanpoko kontu-ikuskaritzak barne.

14.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA

Jasotako laguntza udal-kutxetara itzuliko da, diru-laguntza eman den unetik itzultzea bidezkoa dela ebatzen den unera arteko atzerapen-interesekin, honako baldintza hauetako bat betetzen denean:

- Emandako zenbatekoa ez erabiltzea eskaera egin zenean adierazitako xede zehatzerako.
- Diru-laguntza ezarritako baldintzak bete gabe lortzea.
- Ez betetzea, onuradunari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta, deialdi honetan onartutako betebeharrak eta aipatutako udal-ordenantzak ezarritakoak.
- Gainfinantzazioa, ikusita jarduera egitetik egiazki eratorritako gastuei dagokienez jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Gainfinantzazioa, beste diru-laguntza batzuekin edo beste erakunde publiko zein pribatu batzuen laguntzarekin batu direlako. Kasu horretan, onuradunak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, guztira finantzatutakoari dagokionez hark emandako zenbatekoaren proportzioan.
- Aurreko puntuan ezarritako justifikazio-betebeharra ez betetzea. Gastuaren zatikako justifikazioa egiten bada, justifikatu gabe gelditu den gastuaren pareko zenbatekoa itzuli beharko da.

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko (zati bat edo guztira), proportzionaltasun- eta oreka-printzipioak erabiliko dira kasu orotan. Horretarako, kasu zehatz bakoitzeko baldintzak hartuko dira kontuan.

Itzultzea eskatzeko ebazpena diru-laguntza eman zuen organo berak emango du.

Itzultze-espedituek bat egingo du Herri-administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeko VI. tituluaren ezarritako prozedura-arauekin. Prozeduran, bestalde, entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari, 15 egun baliodunerako.

Halaber, aintzat hartuko da diru-laguntzei buruzko azaroaren 1eko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko III. eta IV. tituluak

ezarritakoa, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko II. tituluak ezarritakoa ere.

ESKAERA AURKEZTU DUENAREN DATUAK/DATOS DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD	
Izen-abizenak Nombre y apellidos	NAN DNI
Zein izaera duzu erakunderako? ¿Con que carácter actúas para la entidad?	

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK/DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE		
Erakunde eskatzailea Entidad solicitante	IFK CIF	
Helbidea (jakinarazpenetarako) Dirección (a efectos de notificaciones)		
Udalerría Municipio	Posta kodea Código postal	EMAIL/EPOSTA
Telefonoa	Mugikorra Móvil	Faxa
Legezko ordezkariaren izen-abizenak Nombre y apellidos del/de la representante legal		

DIRU-LAGUNTZA/SUBVENCION														
Eskatutako diru-laguntza deialdia (zehaztu dagokion lerroa): Convocatoria a la que se presenta (indicar la línea que corresponda):														
Udalari eskatutako kopurua: Cuantía solicitada al Ayuntamiento:														
Diru-laguntza sartzeko kontu zenbakia Cuenta corriente de ingreso														
KONTU-ZENBAKIA / CUENTA BANCARIA														
IBAN	Entitatea Entidad				Bulegoa Oficina			Kontrola	Kontu-zenbakia Número de cuenta					
Erakundeak jarduera berberarentzat beste diru-laguntza bat eskatu edo jaso du La entidad ha solicitado o recibido otra(s) ayuda(s) para la misma actividad														
Bai/Sí <input type="checkbox"/>							Ez/No <input type="checkbox"/>							
Zein erakunde publiko edo pribatutan eskatu zen Nombre de la entidad pública o privada en la que se solicitó														
Eskatutako edo jasotako kopurua Cuantía solicitada o recibida														
Eskatzaileak 2014an Abanto Zierbenako Udaletik kontzeptu berberagatik diru-laguntza jaso zuen La persona solicitante recibió en 2015 subvención del Ayuntamiento de Abanto Zierbena por el mismo concepto														
Bai/Sí <input type="checkbox"/>							Ez/No <input type="checkbox"/>							

Abanto Zierbena(n), _____

Sinadura/Firma

ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- a. Eskaera aurkezten duen pertsonaren **NANaren fotokopia**. Erakundearen **IFKren fotokopia**, persona juridikoa izanez gero.
- b. Diru-laguntza jasoko duen jardueraren edo ekitaldiaren **proiektu zehatza**. Honako hauek dira proiektu horretan agertu beharrekoak: proiektuaren deskripzioa, jarduera zein giza talderentzat izango den, zein helburu lortu nahi den. Abanto Zierbenako Udalarari ekarriko dizkion onurak eta jarduera zein toki eta egunetan antolatuko den.
- c. 2014ko diru-sarrera eta gastuen balantzea eta 2015eko aurrekontua, diru-laguntza eskatzeko arrazoi den jarduerari edo proiektuari dagozkioneak (III Eranskinaren eredia). 2014. urteko diru-sarrera eta gastuen balantzea aipatu urteko diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango berau aurkeztea.
- d. Eskatzailea irabazi-asmorik gabeko elkarte edo fundazioa bada, dagokion **erregistro(eta)ko inskripzio-egiaztagiria** aurkeztu beharko du, Udal ordenantzan jasotakoaren arabera. Horretaz gain, erakundearen **estatutuen kopia** ere entregatu beharko du, inskribatuta dagoen erregistroan behar bezala zigilatuta.
- e. Era berean, eskatzaileak dagokion **Ogasuneko ziurtagiria** aurkeztuko du, zerga betebeharrak egunean dituela ziurtatzeko.
- f. Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin betebeharrak baditu, **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak** egindako **ziurtagiria** aurkeztu beharko du, horrekin dituen zerga betebeharrak egunean dituela ziurtatzeko.
- g. Onuraduna izateko baldintzak ez betetzeagatik debekurik ez duela pairatzen adierazten duen zinpeko aitorpena.

OHARRAK

1. Udalak eskatzaileei eskaera egin aurreko urtean antzeko diru-laguntza eman badie, ez dituzte aurkeztu beharko harrezkero aldatu ez diren A) eta D) ataleko dokumentuak, eta euren eskaeretan aldaketarik egon ez dela jakinaraziko dute.
2. Eskatzaileak beste edozein erakunde publiko edo pribatutan jarduera bera gauzatzeko eskaeraren bat aurkeztu badu, Abanto Zierbenako Udalean egindako eskaeran horren berri eman beharko du. Bertan honakoa azaldu beharko da: finantziario-eskaera zein erakunderi egin zaion/zaien eta zein den eskatutako edota jasotako diru kopurua.
3. Ohiko diru-laguntzak edo jarduera edo proiektuetarako diru-laguntza zehatzak direnean, srtikulu honetan aipatutako dokumentu eta datuez gain, Udalak, kasu bakoitza aztertzeko eskatzaileari egoki deritzonean beste edozein dokumentazio osagarri eska diezaioke, aurkeztutako proiektua osotasunean baloratu ahal izateko.

DOCUMENTACION A ADJUNTAR A LA SOLICITUD

- a. **Fotocopia del DNI** de la persona que presenta la solicitud. En caso de personas jurídicas **Fotocopia del CIF** de la entidad
- b. **Proyecto detallado** de la actividad o evento para el que se solicita la subvención, incluyendo, al menos, descripción del proyecto, sector de la población a la que se dirige la actividad, objetivos que persiguen y referencia expresa al interés que la actividad implique para el Municipio de Abanto Zierbena, con indicación así mismo de los lugares y fechas de celebración. (Modelo Anexo II)
- c. **Balance de ingresos y gastos** del año 2015, así como **presupuesto** del año 2016, relativos a la actividad o proyecto para el que se solicita la subvención. (Modelo Anexo III). **Si el balance de ingresos y gastos del año 2015 ha sido entregado para justificar la subvención del citado año no será necesaria su presentación.**
- d. Si el/la solicitante es una asociación o fundación sin ánimo de lucro, deberá aportar **certificado de inscripción del/de los registro(s)** correspondiente(s), conforme a los establecido en la ordenanza municipal, así como **copia de los estatutos** de la entidad, debidamente sellados por el registro en que la misma se encuentre inscrita.
- e. Se presentará igualmente **certificado de la Hacienda** correspondiente, acreditativo de que el/la solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones fiscales.
- f. Cuando el/la solicitante, de acuerdo con la legislación vigente, tuviera relación obligacional con la Seguridad Social, habrá de presentar **certificado**, emitido por la Tesorería General de la **Seguridad Social**, acreditativo de estar al corriente de sus obligaciones para con la misma.
- g. Declaración responsable de no estar incurso en prohibiciones para obtener la condición de beneficiario (Anexo IV)

OBSERVACIONES

1. Aquellos/as solicitantes, personas físicas o jurídicas, a quienes el Ayuntamiento haya concedido subvención de naturaleza similar en el año anterior a la solicitud, no necesitarán presentar de nuevo los documentos del apartado A) y D), en caso de no haber sufrido ninguna variación.
2. En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de la institución o instituciones ante la que se haya presentado solicitud de financiación, así como con expresión de la cuantía solicitada o, en su caso, recibida.
3. El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al o la solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

PROIEKTU XEHATUA /PROYECTO DETALLADO
II. ERANSKINA / ANEXO II

ELKARTEAREN IZENA NOMBRE DE LA ASOCIACIÓN	
IFK CIF	

ELKARTEAREN HELBURUAK OBJETIVOS DE LA ASOCIACIÓN	
Elkartearen xedearen deskripzio orokorra.	Descripción general del objetivo de la asociación. Marco referencial de las actividades de la asociación.
Elkartearen jardueren erreferentzia esparrua	

ELKARTEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK/ CRITERIOS CORRESPONDIENTES A LA ASOCIACIÓN
Parte-hartzea udal programetan (adierazi programak)/ Colaboración en programas municipales (indicar Programas)
1
2
3
4
5

FIC/CIF: P-4800200-J

PROIEKTU XEHATUA /PROYECTO DETALLADO
II. ERANSKINA / ANEXO II

Lana zabaltzea eta ezartzea (markatu X batez)/ Difusión e implantación del trabajo en: (marcar con una X)

- Las Carreras
 Sanfuentes
 Gallarta

Zenbat urte daraman sortu zenetik eta udalerriarekin duen lotura /Años de constitución, permanencia y arraigo de la Asociación en el municipio

Bazkideen zenbatekoa / N° socios

Gizonek eta emakumeek elkartean duten ordezkaritza orekatua / Representación equilibrada de mujeres y hombres en la Asociación:

- Elkartearen osaketan / En la composición de la Asociación:
- Batzordearen osaketan / En la composición de la Junta:

PROIEKTU XEHATUA /PROYECTO DETALLADO
II. ERANSKINA / ANEXO II

**PROIEKTUEI BURUZKO IRIZPIDEAK/ CRITERIOS RELATIVOS A LOS
PROYECTOS**

1. EUSKARAREN ERABILERA (adierazi programak erabat edo partzialki euskaraz gauzatzen diren edo euskaraz egiten ez diren)/ **1. USO DEL EUSKARA:** (indicar si el desarrollo de los programas se realiza totalmente o parcialmente en Euskara o no se desarrollan en Euskara)

2. PROGRAMEN IRAUPENA/ 2. DURACIÓN DE LOS PROGRAMAS:

PROIEKTU XEHATUA /PROYECTO DETALLADO
II. ERANSKINA / ANEXO II

6 PROIEKTUEN LABURPENA, HELBURUAK, JARDUERAK, LENGOAAREN ETA IRUDIAREN ERABILERA EZ SEXISTA, HARTZAILEAK (emakumea, hirugarren adina, minusbaliatu, adingabeko), BALIABIDEAK ETA AURREKONTUAK ADIERAZITA/ 6. RESUMEN DE LOS PROYECTOS, SEÑALANDO LOS OBJETIVOS, ACTIVIDADES, USO NO SEXISTA DEL LENGUAJE Y DE LA IMAGEN, PERSONAS DESTINATARIAS (mujer, tercera edad, discapacitados, menores edad), RECURSOS Y PRESUPUESTOS.

BALANTZEA 2015/ BALANCE 2015

III. Eranskina / Anexo III

Erakundea Entidad	IFK C.I.F.
DIRU-SARRERAK/INGRESOS	GASTUAK/GASTOS
1. Bazkideenkuotak / Cuotas de socios/as _____ €	1. LANGILEEN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL
2. DIRU-LAGUNTZAK / SUBVENCIONES	• Soldatak / Salarios _____ €
• Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco _____ €	• Gizarte Segurantz a / Seguridad Social _____ €
• Aldundia / Diputación _____ €	2. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK / GASTOS DE FUNCIONAMIENTO
• Abanto Zierbenako Udala ² / Ayuntamiento de Abanto Zierbena	• Jardueretarako gastuak / Gastos de actividades _____ €
Kultura _____ €	• Publizitate-gastuak / Gastos de publicidad _____ €
Euskara _____ €	• Argitalpenak / Publicaciones _____ €
Gazteria / Juventud _____ €	• ekoizpen-gastuak / Gastos de producción _____ €
Kirola / Deporte _____ €	3. KUDEAKETA-GASTUAK / GASTOS DE GESTION
Gizarte Zerbitzuak / Servicios Sociales _____ €	• Komunikazioak (telefonoa...) / Comunicaciones (teléfono...) _____ €
Beste arlo bat ¹ / Otro departamento _____ €	• Argia, ura, garbiketa... / Luz, agua, limpieza... _____ €
• Beste bat ¹ / Otra ¹ _____ €	• Bestebatzuk ¹ / Otros ¹ _____ €
3. BABESLE PRIBATUAK / PATROCINADORES PRIVADOS	4. BESTE GASTU BATZUK ¹ / OTROS GASTOS ¹
• Babeslea ¹ / Patrocinador ¹ _____ €	• _____ €
• Babeslea ¹ / Patrocinador ¹ _____ €	
4. SALMENTAK / VENTAS	
• Sarrerak, matrikulak... / Entradas, matrículas... _____ €	
• Txosna, taberna... _____ €	
• Beste batzuk ¹ / Otros ¹ _____ €	
5. BESTELAKO DIRU-SARRERAK ¹ / OTROS INGRESOS ¹	
• _____ €	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS _____ 0 €	GASTUAK GUZTIRA / TOTAL GASTOS _____ 0 €

¹Zehaztu / Especificar

Adierazten dut informazio hau 2015ko diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu dudala / Declaro que esta información la he presentado para justificar la subvención del año 2015.

AURREKONTUA 2016/ PRESUPUESTO 2016

DIRU-SARRERAK/INGRESOS	GASTUAK/GASTOS
1. Bazkideenkuotak /Bazkideenkuotak/ Cuotas de socios/as _____ €	1. LANGILEEN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL
2. DIRU-LAGUNTZAK / SUBVENCIONES	• Soldatak / Salarios _____ €
• EuskoJaurjaritza / Gobierno Vasco _____ €	• GizarteSegurantz a / Seguridad Social _____ €
• Aldundia / Diputación _____ €	2. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK / GASTOS DE FUNCIONAMIENTO
• Abanto Zierbenako Udala ² / Ayuntamiento de Abanto Zierbena	• Jardueretarakogastuak / Gastos de actividades _____ €
Kultura _____ €	• Publizitate-gastuak / Gastos de publicidad _____ €
Euskara _____ €	• Argitalpenak / Publicaciones _____ €
Gazteria / Juventud _____ €	• Ekoizpen-gastuak / Gastos de producción _____ €
Kirola / Deporte _____ €	3. KUDEAKETA-GASTUAK / GASTOS DE GESTION
GizarteZerbitzuak / Servicios Sociales _____ €	• Komunikazioak (telefonoa...) / Comunicaciones (teléfono...) _____ €
Beste arlo bat ¹ / Otro departamento _____ €	• Argia, ura, garbiketa... / Luz, agua, limpieza.... _____ €
• Bestebat ¹ / Otra ¹ _____ €	• Bestebatzuk ¹ / Otros ¹ _____ €
3. BABESLE PRIBATUAK / PATROCINADORES PRIVADOS	_____ €
• Babeslea ¹ / Patrocinador ¹ _____ €	4. BESTE GASTU BATZUK ¹ /OTROS GASTOS ¹
• Babeslea ¹ / Patrocinador ¹ _____ €	• _____ €
4. SALMENTAK / VENTAS	
• Sarrerak, matrikulak... / Entradas, matrículas... _____ €	
• Txosna, taberna... _____ €	
• Bestebatzuk ¹ / Otros ¹ _____ €	
5. BESTELAKO DIRU-SARRERAK ¹ / OTROS INGRESOS ¹	
• _____ €	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS _____ 0 €	GASTUAKGUZTIRA / TOTAL GASTOS _____ 0 €

¹Zehaztu / Especificar

ZINPEKO AITORPENA DECLARACION RESPONSABLE

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikularekin eta bere araudiaren 24. eta 25. artikuluekin bat etorritz, honen bidez,

Nik,

jaunak/andreak,

elkarteko

ordezkari gisa, adierazten dut ordezkatzeko dudako erakundea:

a) Ez dagoela 38/2003 Legearen 13. artikulua diru-laguntzak lortzeko onuradun bihurtzeko aipatzen dituen debekuen menpe.

b) Ez duela zorrik, dirua itzultzeko ebazpen baten ondorioz.

Abanto Zierbenan,

2016koaren(e)(a)n.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 13.7 de la ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de subvenciones, y los artículos 24 y 25 de su reglamento, por la presente

D.

en

calidad de representante de la asociación

declaro

que la entidad a la que represento:

a) No está incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario para obtener subvenciones a las que se refiere el artículo 13 de la ley 38/2003.

b) No es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

En Abanto Zierbena a

.... de de 2016.

Izpta.:

Fdo .

2016ko BALANTZEA / BALANCE 2016

V.Eranskina **DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO** / Anexo V **PARA JUSTIFICAR SUBVENCIÓN**

Erakundea Entidad	IFK C.I.F.
DIRU-SARRERAK/INGRESOS	GASTUAK/GASTOS
1. Bazkideenkuotak / Cuotas de socios/as _____ €	1. LANGILEEN GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL
2. DIRU LAGUNTZAK / SUBVENCIONES	• Soldatak / Salarios _____ €
• Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco _____ €	• Gizarte Segurantza / Seguridad Social _____ €
• Aldundia / Diputación _____ €	2. FUNTZIONAMENDU-GASTUAK / GASTOS DE FUNCIONAMIENTO
• Abanto Zierbenako Udala ² / Ayuntamiento de Abanto Zierbena	• Jardueretarako gastuak / Gastos de actividades _____ €
Kultura _____ €	• Publizitate-gastuak / Gastos de publicidad _____ €
Euskara _____ €	• Argitalpenak / Publicaciones _____ €
Gazteria / Juventud _____ €	• ekoizpen-gastuak / Gastos de producción _____ €
Kirola / Deporte _____ €	3. KUDEAKETA GASTUAK / GASTOS DE GESTION
GizarteZerbitzuak / Servicios Sociales _____ €	• Komunikazioak(telefonoa...) / Comunicaciones (teléfono...) _____ €
Beste arlo bat ¹ / Otro departamento _____ €	• Argia, ura, garbiketa... / Luz, agua, limpieza... _____ €
• Beste bat ¹ / Otra ¹ _____ €	• Bestebatzuk ¹ / Otros ¹ _____ €
3. BABESLE PRIBATUAK / PATROCINADORES PRIVADOS	4. BESTE GASTU BATZUK ¹ / OTROS GASTOS ¹
• Babeslea ¹ / Patrocinador ¹ _____ €	• _____ €
• Babeslea ¹ / Patrocinador ¹ _____ €	
4. SALMENTAK / VENTAS	
• Sarrerak, matrikulak... / Entradas, matrículas... _____ €	
• Txosna, taberna... _____ €	
• Beste batzuk ¹ / Otros ¹ _____ €	
5. BESTELAKO DIRUSARRERAK ¹ / OTROS INGRESOS ¹	
• _____ €	
DIRU SARRERAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS _____ 0€	GASTUAK GUZTIRA / TOTAL GASTOS _____ 0 €

¹Zehaztu / Especificar

ELKARTEAREN DATUAK / DATOS DE LA ASOCIACION

Izena – Nombre	IFK / CIF

JUSTIFIKATU BEHARREKO KOPURUA:.....

EMANDAKO ZENBATEKOA:

JUSTIFIKATUTAKO ZENBATEKOA:

.....JAUN/ANDREAK..... honako
erakundearen IDAZKARIA-KONTUHARTZAILEA den horrek

AITORTZEN DU

LEHENENGOA.- Onuradunak diruz lagundutako ekintza egin duela eta emandako diru kopurua aitortutako helburua betetzeko bideratu duela.

BIGARRENA.- Aurkezten den balantzea urteari dagokion fakturen zerrendarekin bat aurkezten dela. Aitortzen diren gastu horiek betebeharrak jorrazteko gastuak direla.

Horrela jasota gera dadin, Abanto Zierbenako Udalaren aurrean zuriketa gisa hartua izan dadin,

.....-n 2016ko(a) ren..... (e)(a)n

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA / ERAKUNDEAREN IDAZKARIA

Sin.:

IMPORTE A JUSTIFICAR/

IMPORTE CONCEDIDO/

IMPORTE JUSTIFICADO/

D./DÑA. en su calidad de
SECRETARIO/A-TESORERO/A de la ENTIDAD.....

DECLARA

PRIMERO.- Que la entidad/persona beneficiaria ha realizado la actividad subvencionada y que la cantidad asignada ha sido destinada a cumplir el objetivo para el que se solicitó.

SEGUNDO.- Que el balance que se presenta se acompaña de la relación de facturas imputadas al ejercicio debidamente detalladas y que en su caso, se acompaña de copia de los originales. Estos gastos que se declaran corresponden a TODOS los gastos originados para su cumplimiento.

Para que así conste y como justificación ante el Ayuntamiento de Abanto Zierbena

En , a de de 2016

VºBº, EL PRESIDENTE / EL SECRETARIO DE LA ENTIDAD

Fdo/

Ekimenaren gastuen zerrenda zehatza/Relación detallada de los gastos de la actividad:

Kontzeptua / concepto	I.F.K. / C.I.F.	Hornitzailea / Proveedor	Faktura Zk./ Nº Factura	Fakturaren zenbatekoa/ Importe factura	Fakturaren data /Fecha factura	Ordainketaren data /Fecha pago

GUZTIRA/TOTAL

0

Sin./Fdo. Presidentea